

# EGUN BATZUK IGARATZA-N

POR S. GARMENDIA

Bai goxo zaigula mendigoizaleoi mendira egun-pasa joatea! Are atsegi-ñago aste oso Igaratza-n igarotzea! Ara iritxi, jakiak eta tresnak ekarri dizki-gun mandazaia agurtu, eta kaixo motellak! Aralar guziaren jaun da jabe gaituk. Ura bakardadea! Ardiak, beorrak, moxalak, artzaiak, zeru-goiko putreak eta belatxingak... orra gure mendiko lagunak.

Izan ere... pasa liteke egun ederrik Igaratza-n! Illunabarra da. Laño mordoxka batzu Aizkorri ta Gorbea gañeti. Eguzkia beraka doa, itzaltzen, itzaltzen... Lañoak kolore gorria dute... milaka sorgiñ erratzaren gañean dantzan bailebiltzan. Arratsaren ixiltasun da pakea! Garai berean artzaia txistuka eta zakurra zaunkaka... ardiak beeka artegira. Aulkia eskuan artzaia. Eldu dio bati iztarreti, eta erre-beroa aparretan kaikuaren barneti. Belaxingak ixildu dira, ezta ikusten mitxeletarik. Zerua izarrez ñir-ñirka... ozkarbi! Ipar aize leguna... pagadia... ostoak ostoei muxuka! Atariko bankuak badaki gure berri. Antxen exerita, zenbat aldiz ikusi ote degu eguzkiaren izkututzea!

Goizean goiz jeiki, basotik enbor batzuk karreatu, egurra egiñ, gosaldu etxe-ko garbitasuna egin, da goazen Ernaga gañera. Utz ezkerretara Ernaga-ko pelota lekua eta berealaxen gera Treku-arriko jentil ariaren ondoan; alda-

pa txiki bat igo. Otso-leize eskubira utzi eta Elekomutz-ko mugak jarraituaz, laxter gera Torrean. Intzako-torrea, Gaintze-ko torrea, orra erriak mendi garai orri ematen dizkion izenak. Erri bakoitzak berea. Eztiote beñere Irumugarrieta esango, kaletarrok oi degunentz. Izan ere, Itumuga ezpaitago Torreaneko puntan. Dana dala, tontor ontatik ikusmiratzen diran mendi ta lurra ikustekoak dira. Gure oinpean gain-bera oso pikoa dago. An bean, milla metro baño berago, ikusi ditezke Azkarate, Gaintza, Uztegi, Intza, Atallo, Arribe, eta Betelu. Errazkin, Albiasu, Azpiroz, Lekunberri, Larraun guzia, Basaburu ta Ultzama, goraxeago. Sortaldetik ere zenbat mendi! Ireber, Larrun, Aia-ko arria, Mendaur, Ori, Pirineo mendi txorrotzak. Eizaga malkorra, Monreal-go Iga. Unaga-ko zelaiak egoaldera, Beloki ta Txemiñeko puntak atzeago, eta Altxueta, San Donato, Aundi-mendi ta Urbasa. Monkaio, Aragoi mugako mendi aundia, oso urruti. Kodes, San Lorentzo, Peñazerrada, eskubi aldera. Sakanako arana oinpean da Olazti-ko fabriken tximinetako kedarra urrutixeago. Aizkorri, Gorbea, Anboto ta Udala sartaldetik. Eskubirago berriz, Aralar berean, Pardarri, Ganbo-ta Txindoki. Iparraldeti, Gipuzkoa-ko mendiak: Urreki, Murumendi, Aldaba, Andatza, Uzturre. Kan-

tauri itxasoa. Badute begiak zer ikusi!

Oiek danak ikusmiratu ditzagunean, Elekomutz-ko mugak zegituaz, Aldaon gañera ordu erdi bat baño leenago irri-txiko gera. Andik bi minutu barru daukagu, tulunbio edo barranku ikaragarria. Benetan ikaragarria! Itzalik gabe gelditu nai lukenak, bota beza bere burua andik bera. Gure oinpean bi baserri ikusiko ditugu: Otsolizarre ta Arraizti; Naparro-ko Gaintza-koak biak. Gu baño milla metro beerago daude.

Intza-ko torretik, bide txiorra artu, Beldarri gaña ezkerreara utzi eta Arruta izeneko ordekkara goazke berealaxen. Uso tokia da. Aldako usoak pasatzen diranean, amaikatxo eiztari goseti ikusten da ordeka ontan. Biamoneko itxaropenakin beti ere. Gain-bera jcan da, laxter gera Unaga-ko putzuan. Beor, moxal, ta basabei ugari ikus diteke putzu ontan. Intze-ko Miel Zamargirgoari entzun diogunez —berak bere aittonari entzun omen zion— orain putzua dagoan lekuan, itturri bat omen zan leenago. Ura jaio orduko, lurperatzen omen zan berriro. Zamargiñen aittona mutil kozkorra zalarik pelotan aitzen omen ziran toki ontan, eta pelotea ez galtzearren txapela jartzen omen zuten ura sortzen zan txuloan. Eztago orain itturri aztarrenik. Putzuaren ondoak metro bat dauka, eta beorak eta errekatik edan bearrean, urik gutxiena dagoan Unaga putzutik edan oi dute. Gerora, erreka zulotik gora goazela, naiko ganadu taazienda ikusiko degu larrean. Desamendi-txiki eskuzira utzi eta berealaxen gera Desao-ko errefugio etxean. Bustintza batzordekoak egiña da. Bertan bateon bat balego, ongi artuko gaitu; sartu an eta bota ardo trago bat, edo bestela, nai izan ezker, aldameneko Allapu itturri gozotik ura txurruptu. Eta andik bost minutu barru, Bizkainon txabolan gaude. Ondo

ala ere! Otsolizarreko Periko bertan balego, egon gaitzke seguru ongi etorri gozoa izango degula eta baita ere zatotik ardo tragoxka bat. Txabola ontan, zenbat gau eta egun pasatu ote zitan, bai udan da bai negu bizian, Preo Miel auntsaiak! Batek hadaki! Emendik gora, Desamendi tontorra eskubira utzi eta Aizpearroko ordekan sartuko gera. Ezker aldera zertxobait okertu ezker, ikus dezakegu leize-zulo edo koba moduko estalpe aundi bat. Zorionean giñaudeke, Wagner-en Walkirias edo antzeko zerbait orkesta batek eman da entzungo bagendu. Utz ditzagun amets oiek eta baita ere ezkerreara Anixeto-n txabola; Porroneko ordeka pasa, eta arnas batean gera Igaratzako jatetxean, gero elizatxoan eta errefugioan ondoren.

Bazkaria prestatu, maia atarira ateara, eta platerari ortzak erakustea. Ura gosea izan ere! Bazkal ostean ontziak garbitu, eta eguzkia bizkarrean degula bota zagon bankuan loxusta.

Arratsaldean, Mandarratetik barrena, basoz-baso, Mazerein-go zelaiea joan liteke. Ordu erdiko bidea. Ikuspegi polita dago bertatik: Sakana arnaren erdia ikus liteke andik, Etxarri-Aranaz, Bakaiku eta Urdiain bertena dauzkagula. Manzanilla bildu eta Aparain gañetik, etxaldera. Berealaxen gera Ormazarretako txabola. Batixta andik balitz, itz-aspertu bat egin arekin, eta errefugiara. Eguzkia sartzen ari da. Illunabarra dator. Laño bat edo beste, gero dena izar. Apaldu ta oiera. Anka zabalik, ondo neurtu oia. Amar orduko lo gozoa. Amar ordu lo, aixa egin baiditezke Igaratzako gela txukunetan!

Beste ibillaldi eder bat ere egin diteke. Desao-tik Txemiñe-ko puntara igo. Inondik baño ederkiago ikus liteke emendik Unaga-ko putzua. Torrearena, Mendi-aundi ta beste zenbait tontor dauzkagu sortaldetik. Beloki tonto-

rra, egoaldetik. Goazen aurrera gaiñez-gaiñ eta eskubira begiratzten baldin badegu, Lerritz-ko arkaitz biribill ikusgarria ikusiko degu. Urak eta izotzak urteen buruan jan egin dute arkaitza, eta esan diteke, etxe ta gaztelu itxuran, sorgiñ-erri bat ematen duala. Ikustekoa da benetan! Beloki muturrean laxter gera. Larraun, Basaburu ta Uzama aldera, ikuspegi aparta dago. Ezantzako arana bertan daukagu; uztagun alde batera aran ori eta jo Lizarrreta-ko ordekarano eta begien aurrean dakuskegu Tuturre tontorra. Naiz eta aldapatsua izan, motxa da ta berealaxen igotzen da. Araiz arana ederki ekusten da, baita ere Betelu ta Errazkin. Malloen mugan dagoen bide-txiorra arturik, eta beti ere Araiz arana aurrean, jetxi gaitean Illaun-go ordekkara. «Illobi» ere deitzen diote toki oni, bañan eztegu sekulan treku-arriren edo illobien aztarrenik arkitu. Joan-sendo ta Xamargiñen txaboletan egon gaitean pixka bat, eta segi gero Jextokira. «Gurutze» deritzaion arkaitzera iritxi, Mendi-aundi ezkerrean da Arruta eskubian utz, eta berealaxen gera gain-bera Treku-arrin eta emendik Errenaga-tik Igaratza-n.

Putxerri muturrera errex igo diteke. Ormazarretako txabolak ezkerrean utzi eta Larretxikiko zelaiak eskubira, eta basoan mugarri bat billatuko degu. Jo egoruntz ortik, arzulo batetik pasa. eta basoz-baso balkoi bat bezelako gañera aterako gera. Bide txiorrari jarrai eta malkorrez-malkor, berealaxen gera Putxerri gañean. Sortaldeko muturrean San Miel aingeruaren irudia dago. Inguruak dena baso eta ikuspegi ederra Sakan aldera. Mendi tontorretik Lizarrusti aldera zenbait pauso eman ondoren, malda bera Putxerriko leizea topatuko degu. Eztegu bertako damaea ikusi, bañan, ba-dala diote; badaezpada ere, ixillik ibilli koba aundi ontan.

Sartu gaitean leizean. Aldapa bera eta azpi xamarrean, putzu garbi-garbi bat dago. Aietzek ur garbiak! Ain dira garbiak, bein baño geiagotan putzu ertzean egon ustean, putzuan barrera oiñak sartuak baigera. Putzu onen ondoan, ba-da metro erdi alturako zulo luze bat; dozenerdi bat luze. Zuloa arrastaka igaro eta bestaldean koba bikaña ikusiko degu. Ezta aundia, bañan bai ikusgarria. Au ote da damaren egon lekua? Joan da billa nun duan etzalekua!! Ostera bide berdiñetik kanpora atera, aize pixka bat asnartzera.

Etixerakoan, jo Larretxiki-tik barrera. Basoz goazelarik Akaitz-ko amildegira elduko gera. Kaletar anka-txuri gutxi igotzen da onera. Ala ere, oso toki atsegiña da. Putre-leku aparta, eta. Igaratza ta Beaskin aldeko inguruak ikusteko toki egokia. Andik urre dago errefugioa.

Naiz ta ibillaldi luze xamarra izan, San Mielea degu oso buelta polita. Mandarrate, Intze-zelai, Kolsabarneko arrate, Guarda etxe ta Debata-tik joan diteke. Eta bueltakoan berriz, Dorrontziar-tik barrera, Alkibo karretera kruzatuaz, Bustintza-n txabolatik, Desao-ko errefugiotik barrera Igaratza-ra. Itzul-inguru polita: San Mielen bazkaldu, Altxueta tontorra bide batez ikusiaz. Arratsalde batean egin litekena auxen degu: Igaratza-tik Aizpearro, eta emendik gain-bera, arripausotik barrera, Desamendi-txiki eskubira utz, eta Zeontza-ko iturrira eldu. Iturri-santura gero, eta emendik Iturri-beltzera. Iturri pranko ikusiko degu eta benetan da ibillaldi polita. Aralar osoan dagoan iturririk otzena degu Iturri-beltza; ura, sei gradutik gora ezta beñere igotzen. Errekan gora jo zagus eta beste iturri bat topatuko degu: Esnarrieta. Errenaga-ko ordeka pasa eta, Igaratza-n gera berriro.

(Continuará).